

-ZEHAR-AE-01-

Coloring Book


—

Azucena
Vieites

—



PAULINE WITH SHORT HAIR



una una es
una una

1

dos dos es
dos dos

2

tres tres tres
tres tres

3

cuatro cuatro
cuatro

4

cinco cinco

5













OLLAVIK
DULLAjit
SIS LAA
+ ATOL
ie x
just in
good
the
Ol...
eyes
santa







GIRLS LIKE



*If I can't dance
I don't want to be part of your revolution.*

EDITED BY
MR. SOVERAIDE

7 7


h 4

WWW.SIGNIFICANTDANCE.ORG

































Collages: dibujos para colorear proposamena *Valparaíso: in(ter)venciones* proiektuaren esparruan gauzatu zen Txileko Valparaíson, 2010eko otsailaren 28tik apirilaren 15era. *Collages: Break Out of Your Shell* lana, berriz, Gasteizko Montehermoso Kulturunerako prestatu zen, 2010eko maiatzaren 21etik abuztuaren 29ra. Bi proposamenek berekin zeukaten haur lantegiak egitea, non hiru eta sei urte bitarteko neska-mutilek nire marrazkiak koloreztatzeko aukera zuten. Lantegi horiek egiterakoan, or-

dea, gehiago interesatzen zitzaidan haiengandik ikastea, irakastea baino: kontua zen haurrak beren kasa uztea, haien prozesuan esku ez hartzeko ahaleginak eginez, haiei esan gabe, adibidez, ea aukeratutako marrazkia egokia zen edo ez, edo nola koloreztatu behar zuten, edota beren izena jarri behar zuten beraiek esku hartutako irudi hartan. Paretan jartzerakoan ere, beraiek ipintzen zituzten irudiak, inork ezer ere esan gabe.

Oraindik orain, talentuaz berrikeretan ari ginela, mezu bat bidali nion posta elektronikoz adiskide artista bati, Carme Nogueirari: esaten nion betidanik gustatu zaidala marraztea, margotzea, dantza egitea, bai txikitari bai handiagoa nintzeanean ere. Horrek ez du esan nahi nik uste nuenik ondo egiten nuela, baina ezta gaizki egiten nuela ere; nik gauza bat bakarrik nekien, hura egitea gustatu egiten zitzaidala, alde batera utzita beste edozein balorazio. Horrexegatik bakarrik pentsatzen dut betidanik uste izan dudala hura ondo zegoela, eta zera datorkit burura: egia esateko, talentuak zerikusia dauka teknika bat garatzeko aukera edukitzearekin, horri esker etekina atera diezaiegun norbere gaitasunei edo norbere ezinei. Kontua ez zen gauza hobeak edo okerragoak egiten ote nituen, edota gauza haiek aise edo natural ateratzen ote zitzaizkidan; norbera «ona» izatea edo ez, «gailentzea» edo ez... uste dut inoiz ere ez dudala hori oso modu gatazkatsuan bizi izan, alderantziz baizik, halako txundimen edo urruntasun batez. Nire kasuan, artista izateko baimenik eskatu behar ez izatea eta halako arduragabetasun bat, lagungarri izan zaizkiz horrekin guztiarekin negoziatzeko. Gero, Itziar Okarizekin berrikeretan ari nintzela, berak Eve K. Sedgwick aipatu zidan, eta afektuei buruz duen ideia. Eta ez epaitzeaz mintzatu ginen. Hain zuzen ere, horrexen bila ari nintzen lantegietarako.

Haurren egiteko moduetarantz begiratu nahi izan dut, harritzeko duten ahalmena, kontentziorik eza, eta lengoaia eraikitzeke borondatea direla-eta. *If I Can't Dance, I Don't Want To Be Part of Your Revolution* plataformak bere buletin-tako batean zekarren Peio Aguirrek Jon Mikel Euba artistari egindako elkarrizketa bat. Han esaten zuen nola berak, marrazten duenean, lan egiten duenean, ez duen hori egiten zerbait kontatu edo esan nahi duelako, baizik eta zerbait ikusi nahi duelako. Ikusi nahi izate horretatik bertatik, edo, nolana ere, zerbait transmititu edo adierazi nahi izate horretatik bertatik agertzen zaigu *Coloring Book* ere: jolasetik eta fantasiatik irudikatzeke eta ikasteko saio baten gisara; espazio baten gisara, zeinak, bere prozesu alferrean, itxura hartzeko ahala eskuratzen baitu, bere burua gauzatzeko ahala, izatera iritsi ahal izateke.



Zehar aldizkari-rako proiektu honen zati bat Miren Erasoren omenaldi egunaren bezperan bukatu genuen, 2010eko uztailaren 3an izan baitzen gorazarre hura, Gladys Enean, Donostian. Koaderno honek, bada, bat egin nahi du gorazarre horrekin, eta lagundu nahi du hura gogoan izan dezagun.

Azucena Vieites

Hernani, Gipuzkoa, 1967. Madrilen bizi da, eta han lan egiten du.

Artista. Hainbat proiektutan parte hartu izan du, hala nola, *Valparaíso: in(ter)venciones* izenekoa, Valparaíso, Txile [2010], baita talde-erakusketa ugarian ere. Bakarka, berriz, erakusketa hauek egin ditu, besteak beste: *Collages*, Fúcares galeria, Madril [2009]; *Dibujos del Natural*, MasArt galeria, Bartzelona [2007]; *Check Out Wat I've Got, The Remix*, Kunsthaus, Wiesbadem, Alemania [2006]; eta *Oye lo que traigo*, Rekalde Aretoa, Bilbo [2005]. Bere marrazkiekin hainbat argitalpenetan kolaboratu du, esate baterako, *New Feminism* liburuan [Löcker; Viena, 2007], baita hainbat proiektutan ere, hala nola, *Dig Me Out. Discourses of Popular Music, Gender and Ethnicity* deiturikoan → www.digmeout.org [2009]. Kartela egin zuen 2009an Granadan izandako Estatuko Jardunaldi Feministetarako, eta «Nuevas representaciones. Nuevos contextos» mahai inguru nagusian parte hartu zuen. Erreakzioa-Reacción kolektiboaren bi sortzaileetako bat izan zen 1994an: elkargune bat zen zenbait proiektu egiteko, ardatz hartuta, teoria, arte praktika eta aktibismo feminista.

–ZEHAR–AE–

Zehar Autoedizioak formatu digitaletan [PDF] editatu kaiera monografikoen saila da, Artelekuren webgunean argitaratuko dena → www.arteleku.net

Kaieraren bi bertsio daude eskuragai: bata, DIN A4n, ikusi eta inprimatzeko, eta bestea, DIN A3n, ikusi eta inprimatzeaz gain, tolestu eta kaiera sortzeko aukera ematen duena.

